

IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA
ETXEITA, GETXOKO UDALEKO
IDAZKARI NAGUSIAK

IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA
ETXEITA, SECRETARIO GENERAL
DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO.

ZIURTATZEN DUT: *Getxoko Udaleko Toki Gobernuko Batzarrak 2023ko uztailaren 11n egindako ohiko bileran, besteak beste, honako hau erabaki duela:*

CERTIFICO: *Que la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Getxo, en sesión ordinaria celebrada el día 11 de julio de 2023, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:*

275.- PORTU ZAHARREKO BIZILAGUNEN ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEA ETA HAREN HITZARMEN ARAUTZAILEA ONARTZEA.

275.- CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN NOMINATIVA A LA ASOCIACIÓN DE VECINOS DEL PUERTO VIEJO, "PORTUZARRA" Y APROBAR SU CONVENIO REGULADOR.

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- 70.000 euroko izendun diru-laguntza ematea Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkarteari, IFZ G95698700, honako helburu hauekin:

PRIMERO.- Conceder subvención nominativa a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700, por importe de 70.000 euros con los siguientes objetivos:

- Erakundearen funtzionamenduak eragindako gastuak ordaintzea.
- Portu Zaharreko eraikinei eragiten dieten termitak kentzeko tratamendua mantentzea
- Eraikin jakin batzuetan fatxadak saneatzeko eta pintatzeko obrak
- Instalazio elektrikoko kableak lurperatzea.

- Sufragar los gastos derivados del funcionamiento de la Entidad,
- Ejecución del mantenimiento del tratamiento de eliminación de las termitas que afectan a los edificios del Puerto Viejo
- Obras de saneado y pintura de las fachadas en determinados edificios
- Soterramiento de cableado de la instalación de eléctrica.

BIGARRENA.- Algortako Portu Zaharreko Portuzarra auzo-elkartearen aldeko dirulaguntza izenduna arautzen duen hitzarmena onartzea (I. eranskina).

SEGUNDO.- Aprobar el Convenio regulador de la subvención nominativa a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", que se adjunta como Anexo I a la presente.

HIRUGARRENA.- 70.000euroko gastua baimentzea eta xedatzea izendun diru-laguntzatan Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkarteari (IFZ G95698700) emateko.

LAUGARRENA.- 63.000 euro ordaintzeko beharra onartzea Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkarteari (IFZ G95698700) %90ko lehen ordainketari dagokiona.

Ordainketa onuradunaren izeneko kontu honetan egingo da: BBK ES39 2095 0221 3091 1225 2055.

BOSGARRENA.- Akordio hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, eta Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" elkarteari eta Udal kontuhartzaitzari jakinaraziko zaie.

TERCERO.- Autorizar y disponer el gasto por importe de 70.000 euros en concepto de subvención nominativa a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700.

CUARTO.- Reconocer la obligación de pago por importe de 63.000 euros a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700 correspondiente al primer pago del 90%.

El ingreso se realizará en la cuenta de la entidad beneficiaria: BBK ES39 2095 0221 3091 1225 2055.

QUINTO.- Publicar el presente Acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, notificar a la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" y comunicar a la Intervención Municipal.

Eta horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko, Akta oraindik ez dela onartu ohartarazita, ziurtapen hau egin, eta Alkateak ontzat eman ostean sinatu dut, Getxon.

Y para que conste y surta efectos, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada, expido la presente certificación, que visada por la Alcaldesa, firmo en Getxo.